

Iñaki Martínez de Luna

## Argi gorria kulturagintzarako?



AEko erakunde politiko gorena sozialisten eskuetan gelditzea, kezkarako motiboa da kulturagintzaren eta euskalgintzaren sektore zabal batentzat. Eta mehatxua izan partez aukera balitz?

Izan ere, sozialistek ongi baino hobeto dakite, nazionalista espainiar gisa jokatzeko tentazioari amore emanaz gero, kulturagintzako eta euskalgintzako indarrek oldarrean erantzungo lieketela. Horregatik, arrisku horretatik azkar alde egiten ari da saiatzen Jaurilaritza berria. Baliteke euskal kulturaren ikurpean diharduten erakunde eta elkarteekiko harremanak ondo baino hobeto zaintzea sozialistek. Aprobetxatu beharreko aukera zabalduko ote zaie kulturagintza eta euskalgintzari?

Ikus dezagun zer zioen Maialen Lujanbiok duela gutxi: “Eremu itxia eta zurruna da euskal kulturarena, asuntu konplexua da hori, baina baita konplexuei dagokiona ere”. Konplexuak konplexu, kulturagintzaren kezketako bat da “euskal kidesuna” ez dela joko-zelairik egokiena, indibidualtasuna hedatzen ari den garai post-modernotat: “Adituek diote Euskal Herriak oraindik mantentzen duela bere izaera modernoa, gu-a; eta gaur egungo garaiak, aldiz, indibidualagoak, ni-aren garaiak dira”, Lujanbioren hitzetan.

Herri honetan dirauen kidesun sentimenduak mendebaldeko lurralde gehienguan baino handiagoa izaten jarraitzen badu, posible dugu gure izaera kultural eta identitarioa oinarri horretatik eraikitzen jarraitzea; kidesun horren iraupena ez da, berez, oztopoa. Baina, aldi berean, kontuan izan behar dugu euskal kidesuna ez dela erakargarria herritar guztientzat; bate-re xarmarik gabea zaie batzuei. Edo, areago, eskaintza hori euskal abertzaletasunaren ikur gisa ikusten badute, onartezina eta arbuigarria.

Bestalde, indibidualtasuna pisu handia ari da hartzen, baita euskal kidesunean bertan ere. Eta joera hori ere baliatzen jakin behar du kulturagintzak, bide egiten jarraitu nahi badu. Aro post-modernoan, kultura-kontsumoa hantu indibiduala bihurtu da, eskaintzaren nolakotasuna baino ez kontuan hartuz; ez eskaintza horren sorburua.



ALEX LARRETXI

Hortaz, bi aukera osagarri –ez, kontra-jarri– horiek ditu kulturagintzak: kidesunarena zein indibidualismoarena. Biak ala biak balekoak dira, baldin eta euskalgintzak eskaintza erakargarria egiten badie kontsumitzaileei. Kasu horretan, euskaltasunaren kide sentitzen ez diren kontsumitzaileek ez lukete zalantza izpirik izango halako zerbitzu/produktuak itsu-itsuan kontsumitzeko, euskal kulturagintzak sortuak badira ere.

Berreskura dezagun hasierako ikuspuntua; alegia, sozialistak Eusko Jaurilaritza iritsi izana. Sozialistek euskalgintzaren alde egiten badute, babes edo itzal hori ez zaie lagungarria izango euskal zerbitzu/produktuei, kontsumoaren merkatuan kuota handiagoa lor dezaten? Batetik, euskal kidesunaren eremu kulturala eta identitarioa abertzaletasunetik harantz hedatuko

Sozialistek euskalgintzaren alde egiten badute, babes edo itzal hori ez zaie lagungarria izango euskal zerbitzu/produktuei, kontsumoaren merkatuan kuota handiagoa lor dezaten? Batetik, euskal kidesunaren eremu kulturala eta identitarioa abertzaletasunetik harantz hedatuko litzateke. Bestetik, kulturaren eta identitateen merkatuan lehiatzeko oztopo den abertzaletasunaren *estigma* galduko luke euskal kulturak

litzateke. Bestetik, kulturaren eta identitateen merkatuan lehiatzeko –batzuen begiradapean– oztopo den abertzaletasunaren *estigma* galduko luke euskal kulturak.

Lujanbiok argi zuen garai postmoderno hauetan kulturaren transmisioa ez dela modu naturaletan egingo: “Estrategikoki antolatua izango den zerbait izan behar du transmisioak...”. Nola? Agian, sozialisten aro hau baliatuta, ohiko kidesunari erantsiz merkatu-legeak eskatzen dituen puntako produktu/zerbitzuaren erakargarritasuna eta estrategia komertziala? ■